



PRENTSARAKO OHARRA

18/07/25

Gizarte Ekintzako Foru Diputatuak Gizarte arloko Prestazinoen Ikuskapenerako eta Kontrolerako Plan Orokorren lehenengo urtearen balantze positiboa egin dau

Isabel Sánchez Robles Gizarte Ekintzako Foru Diputatuak, Gizarte arloko Prestazinoen Ikuskapenerako eta Kontrolerako 2017 – 2019 Plan Orokorren funtzionamentuko lehenengo urtearen balantzea egin ostean atera dauen ondorioetako bat, “lehenengo kontrol zorrotz horrek Bizkaiko gizarte zerbitzuek ondo funtzionetan dabela erakusten dabela” da. Horrez gain, “erabilitako jarraipeneko tresnei eta sistematizazioari jagokenez hobetu beharreko arloak” hauteman diran arren, Sánchez Roblesekin argi eta garbi dauka “denborezagaz hobetu egingo dirala”.

EH Bilduk eskatuta, Aldundiko arduradunak 2017an egindako ikuskapenen eta kontrolen ostean jasotako datuak aurkeztu ditu taldeen aurrean. Adinbakoentzako Egoitza Zentroetako Gizarte eta Hezkuntza arloko esku-hartze Planen jagokenez, “gitxienez sei hilebetz behin” aztertzen dirala adierazo dau Sánchezek. Halanda be, horrez gain plan horreek barriri aztertzen dira “alderdiren batean aldaketarako proposamenen bat egiten dan bakotxean”, bai bisiten erregimenari jagokenez edo laguntzarako programetan sartzeari edo ez sartzeari jagokenez.

“Menpekotasun egoeran dagozan pertsonen kalidatezko zaintzak jasoten dituela egiaztatzeko eta zaintzaileen egoera ebaluetako” helburuz, Etxean emoten diran Zaintzen eta Arreten Kontrolerako planteau zan helburu koantitatiboa emondako Familia inguruko zaintzen prestazino (PECEF) guztien %25ekoa izan zan –2016ko abenduaren 31n, aurreikusitako urteko 3.741 bisitatatik 2.138 barrikuspen egin ziran–. Foru Diputatu andreak azaldu dauenez, horren errazoa, plana ekitaldiaren erdialdean onetsi zala da. Horrez gain, “etxe normalizauak” dirala esan dau. Kasuen %67an persona zaintzailea batez beste 64 urte dituan emakumea da.

Hirugarren puntuan, Aldundiaren esku dagon plazea daukien Adinekoentzako zentroen zaintzei jagokenez, Diputatuak esan dau erabiltzaile bakotxak bere ezaugarri pertsonaletara egokitutako Banakako Arreta Plana (BAP-PAI) daukala. 2017ko Ekintza Planak, alde batetik, Egoitza Zentroetako erabiltzaileekin erlacionautako 520 BAP-PAIren eta Adinekoentzako Eguneko zentroen erabiltzaileen 136 BAP-PAIren kontrola aurreikusten eban. Azkenean, kopuruak altuagoak izan dira, 432 eta 244 erabiltzaile, hurrenez hurren. Lehenengo kasuan helburua bete ez dan arren, bigarreanean gaintitu egin da.

Bukatzeko, Desgaitasuna daukientzako zentroetan “kasuaren banakako jarraipenaren hurragoko beharra” egin da. 2017an, erabiltzailearen 550 esku-hartze plan kontrolau dira. Modu berean, Desgaitasuna daukientzako eguneko zentroetan 170 kasu kontrolau dira.

“Zuk dana oso ondo dagola, arreteak bikaina dala dinozu”, adierazo dau Arantza Urkaregi EH Bilduko batzordekideak, “baina gero jakiten dogu pertsonen ez dabela euren BAP-

PAIa ezagutzen eta ez daukiela erreferentziazko personarik”. Eneritz de Madariaga Podemos Bizkaia taldeko batzordekideak, bere aldetik, “gaur lantzen ari danari ekitea nahiko gaitza dala” adierazo dau. Dana dala, datuen sistematizazioa egiteko eskatu deutso sailari. Eduardo Andrés batzordekide popularrak, plana berandu martxan jarri izanari jagokonez, “beharbada akatsa aurreikuspenak egiteko orduan egin zala” esan dau.

Foru Gobernua eusten daben taldeen aldetik, Juan Otermin sozialistak ikuskapen zerbitzuaren memoria esku artean euki arte itxaroteko eskatu dau, “irakurketa zorrotzagoa egin ahal izateko”. “Uste dot herritarrek sistema ona dala jaso behar dabela, hobekuntzak izan daikezala, jakina, baina sistemaren ganean ziurtasuna erakustea oso garrantzitsua iruditzen jaku”, adierazo dau Jon Sánchez jeltzaleak.

ADINEKOEN AUTONOMIA ETA ARRETEA SUSTATZEKO PLANA

Horrez gain, Gizarte Ekintzako Foru Diputatuak, bere sailak Adinekoen Autonomia eta Arretea Sustatzeko Plana zelan gauzatuko dauen azaldu dau. Zehaztu dauenez, lehenengo fasean datuak batuko ditue “gaur egun indarrean dagozan politika publikoen ezagutzan sakontzeko, Aldundiaren esku dagozanetan modu berezian zentrauz”.

Horren ostean “aurreikusitako emaitzen espezifikazioak zehaztu” beharko ditue, adinekoen euren itxaropenetan oinarrituta. Hirugarrenez, “persona nagusien artean autonomia maila altuagoak lortzeko” eta “menpekotasuneko egoeretan arretea hoberena” lortzeko beharrezkoak diran jarduerak definiduko dira. Bukatzeko, planak “lorpenak eta aurrerapausuak ebaluetako formula” jasoko dau.

Aurreratu dauenez, ikasturte barriaren hasieran saio bat daukie aurreikusita Bizkaiko Adinekoen Kontsejuan. Horrez gain, datorren ekitaldiaren lehenengo erdialdean “oso dokumentu aurreratua” eukiteko asmoa be jakinarazo dau.

BARAKALDOKO SANITAS EGOITZEA

Aurreko osokoan egoitzan hautemandako zaragar kasuak dirala eta egin eban moduan, Foru Diputatuak “zero arriskua ez dala existitzen” esan dau, “menpekotasun egoeran dagozan adinekoak ezin doguzalako isolatu”. “0 arriskua ez da existitzen, baina prebentzioa bai”, erantzun deutso Josean Elgezabal Podemoseko batzordekideak.

Bere esku hartzean, Sánchez Roblesek joan dan martiaren 7an erregistrau zan eta egoitza horretako adinekoen hainbat senidek sinatu eben kexea be aitatu dau. Bertan, gabeziak eta hobetu beharreko puntuak aitatzen ziran. Dana dala, Zentroko Zuzendariagaz bilerea egin ostean, Ikuskapen eta Kontrol zerbitzuak “zentroaren egoerea zuzena dala eta ez dagola alarmarako motiborik” ondorioztatu eban.

Hori entzun ostean, Elgezabalek adierazo dau arduratuta dagola senideek, “nutrizioa, janariaren kalidade faltea, zaborren tratamendua, higiena eta osasuna” dirala eta aurkeztu dituen kexen aurrean.

25/07/18

La Diputada Foral de Acción Social realiza un balance positivo del primer año del Plan General de Inspección y Control de Servicios y Prestaciones Sociales

Una de las conclusiones sacadas por la Diputada Foral de Acción Social, Isabel Sánchez Robles, tras realizar un balance del primer año de funcionamiento del Plan General de Inspección y Control de Servicios y Prestaciones Sociales 2017 – 2019 es que “este primer control exhaustivo demuestra que los servicios sociales de Bizkaia funcionan bien”. Asimismo, a pesar de haber detectado “aspectos de mejora, respecto a las herramientas de seguimiento utilizadas y sobre su sistematización”, Sánchez Robles no duda en que “mejorarán con el tiempo”.

A petición del grupo EH Bildu, la responsable foral ha presentado ante los grupos los datos obtenidos tras las inspecciones y controles realizados en 2017. En lo que a los Planes de Intervención Socioeducativa de menores en centros residenciales se refiere, Sánchez ha manifestado que estos son analizados “como mínimo una vez al semestre”. No obstante, estos planes además son revisados “siempre que se realiza alguna propuesta de modificación en alguno de sus aspectos”, ya sea respecto al régimen de visitas o la inclusión o no en programas de apoyo.

Con el objetivo de “verificar que las personas en situación de Dependencia reciben cuidados de calidad, así como evaluar la situación de las personas cuidadoras”, el objetivo cuantitativo planteado para el Control de Cuidados en el Hogar fue de un 25% del total de Prestaciones para los cuidados en el entorno familiar (PECEF) concedidas – a 31 de diciembre de 2016 el número de personas perceptoras ascendía a 15.006-. No obstante de las 3.741 visitas anuales previstas se realizaron un total de 2.138 revisiones. Esto se debe, según ha explicado la Diputada Foral, a que el plan fue aprobado a mitad del ejercicio. Asimismo ha manifestado que se trata de “hogares normalizados” en los que la persona cuidadora en un 67% es una mujer con una edad media de 64 años.

En tercer lugar, en relación a los cuidados de las personas mayores en centros con plaza foral, la Diputada ha explicado que cada persona usuaria cuenta con un Plan de Atención Individualizado (PAI) ajustado a sus características personales. El Plan de Acción 2017 preveía, por un lado, un control de 520 PAIs vinculados a las personas usuarias de los Centros residenciales, y 136 PAIs de los/as usuarios/as de los Centros de día de Personas Mayores. Finalmente los números han ascendido a 432 y 244 personas usuarias, respectivamente. Mientras que en el primer caso no se ha cumplido el objetivo, en el segundo se ha superado.

Por último, en los Centros de discapacidad se ha llevado a cabo “un proceder más cercano al seguimiento individualizado del caso”. En 2017 el número de personas usuarias cuyos planes de intervención han sido objeto de control asciende a 550. De igual manera en los centros de día en el ámbito de las personas con Discapacidad han sido objeto de control 170 casos.

“Usted dice que todo está perfecto, que la atención es estupenda”, ha manifestado la apoderada de EH Bildu Arantza Urkaregi, “pero luego nos enteramos de las personas no conocen su propio PAI y carecen de una persona referente”. Por su parte la juntera de Podemos Bizkaia, Eneritz de Madariaga ha declarado que “está resultando bastante inabordable lo que hoy se está tratando”. No obstante ha instado al departamento a llevar a cabo una sistematización de los datos. El apoderado popular, Eduardo Andrés, en relación a la puesta en marcha tardía del plan ha manifestado que “igual el error estuvo a la hora de realizar las previsiones”.

Por parte de los grupos del Gobierno Foral, el socialista Juan Otermin ha instado a esperar a tener la memoria del servicio de inspección para poder “hacer una lectura más detallada”. “Creo que la ciudadanía debe recepcionar que el sistema es un sistema bueno, evidentemente con las mejoras pertinentes, pero la clave de trasladar certidumbre sobre el sistema a nosotros nos parece importante”, ha expresado el nacionalista Jon Sánchez.

PLAN PARA LA PROMOCIÓN DE LA AUTONOMÍA Y ATENCIÓN A LAS PERSONAS MAYORES

Asimismo, la Diputada Foral de Acción Social, ha explicado la manera en la que su departamento va a ejecutar el Plan para la Promoción de la Autonomía y Atención a las Personas Mayores. Tal y como ha detallado, en una primera fase recopilarán datos “para profundizar en el conocimiento de las políticas públicas actuales con especial foco en las de competencia foral”.

Seguidamente deberán “detallar las especificaciones de los resultados esperados” basándose en las expectativas de los propios personas mayores. En tercer lugar se definirán las actividades necesarias “para lograr cotas superiores de autonomía personas de la población mayor” así como “su mejor atención en situaciones de dependencia”. Por último el plan incluirá “una fórmula de evaluación de sus logros y avances”.

Según ha adelantado a principio del nuevo curso prevén una sesión en el seno del Consejo de Personas Mayores de Bizkaia. También ha expresado la intención de contar con un documento “muy avanzado” en la primera mitad del próximo ejercicio.

RESIDENCIA SANITAS DE BARAKALDO

Tal y como ya hizo en el pleno anterior en relación a los casos de sarna detectados en la residencia, la Diputada Foral ha reiterado que “no existe el riesgo cero” puesto que “no podemos aislar a las personas mayores en situación de dependencia”. “El riesgo 0 no existe pero la prevención sí”, ha replicado el apoderado de Podemos, Josean Elguezabal.

Durante su intervención, Sánchez Robles también ha hecho referencia a una queja registrada el 7 de marzo y firmada por varios familiares de dicha residencia en la que señalaban deficiencias y puntos a mejorar. No obstante, y habiéndose celebrado una reunión con el Director del centro, el servicio de Inspección y Control concluyó que “la situación en el centro es correcta y que no existe motivo para alarmarse”.

Ante esta afirmación, Elguezabal ha asegurado mostrarse preocupado por las quejas por “la nutrición, la falta de calidad en la comida, el tratamiento de basuras, la higiene y salud” expresadas por familiares.